



ENPLEGU ETA GIZARTE GAJETAKO  
SAILA

Gizarte Gaietako Sailburuordetza  
Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y  
ASUNTOS SOCIALES

Viceconsejería de Asuntos Sociales  
Dirección de Servicios Sociales

## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IJITO HERRIAREN ERABATEKO SUSTAPENERAKO ETA PARTAIDETZA SOZIALERAKO KONTSEILUAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

2012ko apirilaren 2ko bilera  
Behin-behineko akta (zirriborroa)

### Deialdia egin duena:

#### Presidentea:

**Gemma Zabaleta andrea.** Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua

### Bertaratuak:

#### Presidenteordea:

**Manuel Vizarraga jauna.** Kalé Dor Kayikó elkarte.

**Alfonso Gurpegui jauna.** Gizarte Gaietako sailburuordea.

**Miguel González jauna.** Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko zuzendaria.

**Luisa M. Puertas andrea.** Hezkuntza Saila.

**Ignacio Rodríguez jauna.** Kultura Saila.

**Begoña Ensunza andrea.** Herrizaingo Saila.

**Ignacio de la Puerta jauna.** Etxebizitza Saila.

**Bakarne Uriarte andrea.** Osasun Saila.

**Javier Ruiz jauna.** Enplegu Saila.

**Paloma Aranceta andrea.** Arabako Foru Aldundia.

**Sergio Murillo jauna.** Bizkaiko Foru Aldundia.

**Ricardo Ituarte jauna.** EUDEL.

**Rosa Romero andrea.** Gao Lacho Drom elkarte.

**Pascual Borja jauna.** Gao Lacho Drom elkarte.

**Eduardo Motos jauna** (†). Barakaldoko Ijitoen elkarte.

**Valentín Jiménez jauna.** Iniciativa Gitana elkarte.

**Óscar Vizarraga jauna.** Kalé Dor Kayikó elkarte.

**Tamara Clavería Jiménez andrea.** AMUGE elkarte.

**Juan Carlos Jiménez jauna.** Kamelamos Adikerar elkarte.

**Eugenio Jiménez jauna.** Kamelamos Adikerar elkarte.

**Silvana Jiménez andrea.** Romí Bidean elkarte.

**Victoria Jiménez andrea.** Sim Romí elkarte.

**Soraya Motos andrea.** Sim Romí elkarte.

**Begoña Lasa andrea.** Adarra kolektibo pedagogikoa.

**Nuria de la Cruz andrea.** Secretariado Gitano fundazioa

**Mónica Guitera andrea.** Gipuzkoako Gizarte Langileen Elkargoa, Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.

**Ángel Manero jauna.** Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza. Kontseiluaren Idazkaritza Teknikoa.

**Javier Pérez jauna.** Kontseiluaren Idazkaritza Teknikoa.

### Bertaratu ez izateagatik desenkusatu dira:

EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea.

Gipuzkoako Foru Aldundia.

Gipuzkoaren Etorkizunerako Ijito Elkarte.

Chanelamos Adikerar elkarte.

Donostiako Caritas – Ijito Programa

Eguna: 2012ko apirilaren 2a

Ordua: goizeko 11:30ean

Tokia: 6. aretoa – Lakua. Eusko Jaurlaritza (Gasteiz)

### **Gai-zerrenda:**

1. Aurreko bilerako (2011/11/14) akta onartzea.
2. Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Euskal Plana: garapena, balorazioa eta jarraipena.
  - Europako eta Estatuko testuingurua:
  - 2020 Estrategia.
3. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko dekretua.
4. Informazio interesgarri gehiago:
  - Esku-hartzea EAEn bizi diren Europako Erkidegoko jatorria duten ijitoen asentamenduetan.
  - Ijito Herriaren Estatu Kontseilua.
  - IX. Berdintasunerako Gunea: maiatzak 17.
  - Euskadiko Eskola Kontseiluak sustatutako jardunaldia: apirilak 27.
  - Apirilaren 8rako, Ijito Herriaren Nazioarteko Egunerako, aurreikusitako jarduerak
5. Galde-eskeak.

### **Bileraren garapena:**

Alfonso Gurpeguik bertaratuei ongietorria eginez eman dio hasiera bilerari eta, ondoren, aurkezpen-txanda bat egin da.

#### ***1. Aurreko bilerako akta onartzea, hala badagokio.***

Aurreko bilerako akta onartu da, ekarpen garrantzitsurik egin gabe.

#### ***2. Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Euskal Plana: garapena, balorazioa eta jarraipena. Europako eta Estatuko testuingurua: 2020 Estrategia.***

Planaren gauzatzea zertan den laburtzen duen dokumentu bat aurkeztu da eta hari buruz hitz egin da gainera, Planarekin lotutako eragileek egindako jarduerak aztertuz, eta, gero, ijito-herria gizarteratzeko Europako eta Estatuko esparru estrategikoak aurkeztu dira. (Zehaztasun gehiago izateko, kontsultatu osoko bilkuraren deialdiari erantsita bidalitako dokumentuak).

Behin Idazkaritzak eta Alfonso Gurpeguik azalpena amaitutakoan, Gurpegui jaunak iruzkinen txanda ireki du.

Begoña Lasa bat dator adierazitako ikuspuntuarekin; hau da, uste du aipatu diren jardueretako asko berdin-berdin gauzatuko lirakeela Planarekin edo Planik gabe, eta adierazi du etorkizunerako aurreikuspenak falta zirela azalpenean. Lasa andrearen iritziz, Plana ia estreinatzeke dago oraindik, betiko erakundeak ari dira parte hartzen, eta uste du erakundeek irakurketa autokritiko bat egin beharko luketela.

Pascual Borja ere ados agertu da azaldutakoarekin, batez ere jardueretako asko Planik gabe ere egingo lirakeelako ideiarekin, eta azpimarratu du ijito-elkarteek arazo ekonomikoak dituztela, eta horrek nabarmen murrizten diela eskaintzen dituzten zerbitzuak emateko eta programak garatzeko gaitasuna. Beharrezkoa da elkarre-mugimendua indartzea, eta, horretarako, baliabideak eman behar zaizkie esku-hartzeen ardatz gisa erabili nahi diren gizarte-erakundeak; izan ere, ez zaie bitartekorik ematen, eta akordioaren alderdirik ahulenari botatzen zaio ezer ez egitearen errua, baina alderdi horrek ezer gutxi egin dezake dituen baliabide eskasekin. Azkenik, azaldutakoaren balorazio positibo bat egin du Europako eta Estatuko estrategiei dagokienez, estrategia horiek etorkizuneko ikuspegi oso bat izaten laguntzen dutelako, eta epe luzeagoko helmuga bat izanik aurrera egiteko aukera ematen dutelako.

Alfonso Gurpeguik autokritikaren gaiari heldu dio, eta Kontseiluarekin eta Planarekin lotura duten eragile guztiei zabaldu die erronka. Eragile guztiek egin beharko lukete egin denari eta egin behar denari buruzko



irakurketa kritiko bat, eragile bakoitzak Planean adierazitakoa gauzatzeko aurkitzen dituen eragozpenekin eta aukerekin. Kontseilua kide anitzeko organo bat da, eta guztien azterketa jaso behar du, eragile bakoitzaren jardueraren berrikuspen kritiko batetik abiatuta. Nolanahi ere, aurrez hitz egin dutenek adierazitakoa ezeztatze asmorik gabe, egoeraren ikuspegi positibo bat ematen jarraitu du, uste duelako Planak baliozko tresna erabilgarri bat izaten jarraitzen duela, nahiz eta amaitu gabe dagoen oraindik. Horrekin lotuta, Alfonso Gurpeguik azaldu du Kontseiluak beste bi urtez luza dezakeela (2012-2013) Planaren indarraldia, haren edukia berrikusiz eta osoko bilkuran aurkeztu berri diren Estatuko eta Europako esparru estrategikoen ekarpenekin aberastuz; hau da, plangintza-tresna horien jarduerak eta ekintza-lerroak uztartuz, eta, zergatik ez, Ijito Planaren ideia nagusiekin uztar daitezkeen sail bakoitzaren jarduerak gehituz, hala nola Hezkuntza Sailak sustatu duen Eskola Inklusiboaren Programa.

Alfonso Gurpeguik beste ideia bat gehitu dio mahaigaineratutako proposamen horri: *Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzari* ematea ijito-herriarekin lotutako gaien eskumena, eta bereziki Kontseiluarekin eta Planarekin lotutakoena. Izan ere, orain arte *Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzara* zegoen atxikita Idazkaritza, eta, beraz, Kontseiluarekin eta Planarekin lotutako guztia. Egin zaizkion galderi erantzutean, Alfonso Gurpeguik azpimarratu du horrek ez duela esan nahi Gizarte Gaietako Sailetik baztertuko denik gaia, baizik eta hautsi egin nahi dela ijitoak gizarte-zerbitzuen esku-hartzeak per se jasotzen dituztelako ideia, eta helburua dela jardueren zeharkako ikuspegi integratzaile bat lortzea, Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzako beste jarduera batzuekin batera.

Oscar Vizarragak hartu du hitza, aipatutako proposamenekin ados dagoela adierazteko, baina azaldu du beldur dela ijito-herriaren behar eta egoera espezifikoari arreta emateko aukera galduko ote den, ikuspegi orokorrako baterantz jotzean. Bestalde, adierazi du beharrezkoa dela Alfonso Gurpeguik aipatutako Eskola Inklusiboaren Programa Ikasle Ijitoen Eskolatzea Hobetzeko Planarekin osatzea, eta salatu du sail batzuek erreparatutako dituztela ijito-herriarentzako jarduerak behar duten espezifiktasuna kontuan hartzeko eta onartzeko. Honako hau esan du, zehazki: *Inolaz ere ez genituzke ahaztu beharko Kontseilu honen helburua eta izateko arrazoiak; hau da, espezifiktasun hori onartzetik ekarpenak egitea.*

Alfonso Gurpeguik adierazi du ez duela zalantzan jartzen espezifiktasun hori, baina azpimarratu du espezifiktasun horiek bi ikuspegiak uztartzen dituen planteamendu barne-hartzaile eta integratzaile baten barruan landu daitezkeela.

Pascual Borjak galdetu du zenbat iraungo duen proposatutako luzapenak, eta azaldu du zalantzak dituela Idazkaritza Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzara eramateak eskumenean eta funtzioetan izango dituen ondorioez.

Alfonso Gurpeguik testuinguruan jarri du zuzendaritza-aldaketa hori, eta azaldu du Sailaren barruan beste mugimendu batzuk ere egingo direla, Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzaren eskuduntzak berrantolatzen ari baitira, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean ezarritakora egokituz, eta 2009ra arte Zuzendaritza horren eskumenekoak ziren beste gai batzuk lekualdatuz.

Luzapen-proposamenari dagokionez, Luisa M. Puertasek azaldu du honako hau dela ideia, dagoeneko Batzorde Iraunkorrean aipatua: jarraipena ematea Planari, baina ez inposatzea gehienez ere urtebeteko epean egingo diren hurrengo hauteskundeetan aukeratuko den gobernu berriari. Ideia Batzorde Iraunkorrean hitz egitean, adierazi zen helburua zela datozen hauteskundeetan aukeratuko den gobernu berriak bere jarduerak orientatuko dituen erreferentziatzko esparru bat izatea mahai gainean, baina ez gobernu horren epe luzeko estrategia baldintzatuko duen plan bat. Horregatik aipatu zen bi urtez luzatzeko ideia.

Miguel Gonzálezek hartu du hitza, esateko oro har ados dagoela Kontseiluari eta Planari buruz adierazitakoarekin. Kontseiluarekin eta Planarekin lotutako gaiak bere ardurapeko zuzendaritzara eramateari dagokionez, azpimarratu du bere zuzendaritza espezialista dela gai horiekin lotutako funtsezko alor batzuetan: kulturartekotasunean, parte-hartzean –helburu gisa eta metodologia gisa– eta zeharkakotasunean.

Esan du bere zuzendaritzan ijitoen komunitatearekin eta ijito-herriarekin lotutako gaiak uztartzeak sinergia interesgarriak sor ditzakeela; adibidez, tratu-berdintasunerako eta bereizkeriarik ezerako politikan, gero eta aniztasun handiagoa duen gizarte-testuinguru batean, nahiz eta onartu duen bere zuzendaritzak ia ez duela eduki propiorik alor horretan. Adierazi du bere indargunea izan daitekeela zeharkako planteamenduekin (kasu honetan Ijito Plana) lotura duten beste eragile batzuek jarduerak sustatzeko duen funtzionaltasuna.

Pascual Borjak azaldu du ijitoen espezifikotasunari eman beharreko arreta zuzendaritza berrian galduko ote den beldur dela, baina onartu du ijito-elkarteek zuzendaritza horrekin aurrez harremanik izan ez dutelako soilik sortzen zaiola beldur hori.

Oscar Vizarragak honako hau gehitu dio Pascual Borjak esandakoari: beharrezkoa dela hausnarketa bat egitea Miguel Gonzálezek aipatutako kulturarteko kontzeptu eta planteamendu horren edukari eta norainokoari buruz.

Begoña Lasak azaldu du berak ere baduela "prebentziozko" beldur hori, nahiz eta onartzen duen ezjakintasunagatik dela nagusiki, eta batez ere gobernu-aldaketak zuzendaritza hori desagerraraztea ekarriko ote duen beldur dela, bai eta horrekin batera ijitoen komunitateak horren beharrezko duen arreta espezifikoa galduko ote duen beldur ere.

Miguel Gonzálezek erantzun dio gaur egun bere ardurapean duen zuzendaritza Jaurlaritzaren zati izan dela azken 11 urteotan azken hiru legegintzaldietan. Horrekin azpimarratu nahi izan du, ijito-elkarteentzako zuzendaritza ezezagun bat izan badaiteke ere, ez dela hasiberri bat Jaurlaritzako zereginetan.

### 3. *Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko dekretua.*

Deialdiarekin batera bidalitako aurkezpena (PowerPoint) oinarritzat hartuta, Alfonso Gurpeguik administrazio publikoekin eta gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeekin egindako lan-prozesua errepasatu du gainera, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko azken dekretuaren edukian gelditu da. Eduki horrek aurrerapausoak ematen ditu dekretuan jasotako zerbitzuak eta prestazioak nori eta zer baldintzatan eman behar zaizkion definitzen eta zehazten, eta azpimarratu da aurkezpen honetarako erreferentzia gisa erabilitako zirriborroa ekarpenak jasotzeko fase irekian dagoela apirilaren 30era arte.

Pascual Borjak Zorroaren Dekretuak jasotzen ez duen aldeari buruz hitz egin du, eta esan du ez dela behar adina aipatzen gizarte-ekintzako hirugarren sektoreak dekretuan agertzen diren zerbitzuak ematen egiten duen lana. Pascual Borjaren ustez, ez zaie behar adina entzuten gizarte-erakundeei, pertsonen egoeren balorazioak egiten dituztenean, nahiz eta erakunde horiek zuzenean jakin zein diren egoera horiek eta zuzenean lagundu zerbitzu horiek ematen.

Alde horretatik, Pascual Borjak **Balora** tresna aipatu du. Haren ustez, adibide horrek argi erakusten du balorazio-tresna horiek ez dutela berdin balio pertsona guztientzat, eta gizarte-erakundeek egoera pertsonal eta/edo familiako egoerei buruz eman dezaketen informazioarekin osatu beharko lirakeela, tresna estandarizatuek ez dutelako behar bezala jasotzen informazio hori.

Alfonso Gurpeguik erantzun dio gizarte-zerbitzuen alorreko eskumena duten administrazio publikoei soilik dagokiela pertsonak/familiak bizi dituzten egoera jakin batzuk baloratzeko tresnak erabiltzea, hala nola **Balora** erabiltzea, baina horrek ez duela esan nahi ezin denik erabili beste eragile batzuek emandako informazioa, hala nola hirugarren sektoreko erakundeek emandakoa, balorazio osoago eta zehatzago bat egiteko.

Paloma Arancetak esandakoa osatu du, azpimarratuz oso desberdina dela balorazio-tresna bat aplikatzea edota kasu-plan bat egitea, diagnostiko-balorazio oso batetik abiatuta.

### 4. *Informazio interesgarri gehiago.*

Zenbait material banatu dira epe laburrera aurreikusita dauden jarduera batzuekin lotuta; besteak beste, apirilaren 27an Bilbon egingo den jardunaldiarekin lotuta (Euskadiko Eskola Kontseiluak sustatu du, Kontseilu honen lankidetzarekin), eta maiatzaren 17an emakume ijitoen eta emakume-elkarteen artean egingo den topagunearekin lotuta (Emakunde urtero sustatzen duen Berdintasunerako Gunearen esparruan egin da).

Valentín Jiménezek gainera aipatu du emakume ijitoen elkarten plataforma bat egiteko prozesu bat jarri dela martxan Estatuan, Ijito Herriaren Estatu Kontseiluaren muga formalak eta eduki-mugak gainditu ahal izateko, Estatu Kontseilu hori sortzen eta arautzen duen arauak zenbait muga ezartzen ditu eta.



## 5. Galde-eskeak.

Begoña Lasak galdetu du zer aurreikuspen dauden Planaren luzapenarekin lotutako jarduerekin jarraitzeari dagokionez.

Alfonso Gurpeguik erantzun dio Batzorde Iraunkorraren bidez bideratuko dela egin beharreko lana, eta apirilaren amaiera aldera egingo dela Batzorderako deialdia.

Manuel Vizarragak eskerrak eman dizkie bertaratu guztiei, han izateagatik eta parte hartzeagatik, bere izenean eta ijito-komunitate osoaren izenean: *“Sinetsi nahi dut egiten ari garen guztiak eragina izango duela ijito-herriaren egungo eta etorkizuneko ongizatean”*. EAEko ijito-herriaren zati bat bere eskubideen alde borrokan ari da, eta, guztion lankidetzarekin, norabide zuzenean egingo du aurrera. *“Izan gaitzazue kontuan”*. Ondoren, ijito-elkarteei hitz egin die bereziki, gazteenei esateko beren etorkizunaren protagonista izaten ausartu behar dutela, eta, horretarako, behar-beharrezkoa dela prestakuntza, jakintza. *“Ezin dugu onartu -esan du- gure haurrek behar adinako prestakuntza jaso gabe uztea eskola; gure zeregin nagusia da beren orainaren eta etorkizunaren jabe egitera animatzea neska-mutilak, eta jakintza, ikasketa eta prestakuntza dira horretarako bideak”*.

Alfonso Gurpegui bat dator Manuel Vizarragak esandakoarekin, eta esan du oso ongi adierazi duela guztion artean lortu behar duguna. Eta, bertaratuek bestelako gai interesgarririk mahaigaineratu ez dutenez, bilera 13:40ean amaitu da.

IDAZKARIA

O.E.  
PRESIDENTEA